

«Hiru arau daude idazteko, zoritxarrez, inor ez da ados jartzen zeintzuk diren esateko orduan»

Irati Jimenez

Somerset Maugham eleberrigilea izan zen, teatro idazlea, saiakerara emana eta baita espioia ere, Erresuma Batuen zerbitzura. «Hiru arau daude idazteko» esan zuen, «zoritxarrez, inor ez da ados jartzen zeintzuk diren esateko orduan». Idazlea izan zen baita John Steinbeck ere. Nobela bikainak egin zituen eta gerra erreportaje gogoangarriak. «Idazteak magiarik badu, eta konbentzituta nago baduela», esan zuen Literatur Nobel saria jasotzerakoan, «inork ezin izan du inoiz pertsona batetik bestera pasatzeko moduko errezeta batean bildu».

Bi ondorio atera daitezke, gutxienez, idazle miretsien hitzetatik. Bata, lehen idazleek askoz bizitza interesgarriagoak zituztela (gerra berriemailea, tira, baina espioia?!). Bigarrena, idazteko arauen kontu hori idazleen obsesio ohikoenetakoa dela. Eta kontraesankorrenetakoa ere bai: araurik ez badago, ezin bada inolako aholku edo errezetarik eman... zergatik daude horrenbeste arau sorta, horrenbeste idazle/aholkulari?

Aiztoa eta arkatza egiteko ia 30 bildu ditugu, fikzioaren olatuen kontra amorratu diren beste hainbeste idazlerenak. Dekalogoak, poemaren bat, eskutitzetan jasotako araubideak edo idazleren baten horman eskegitakoak. Denak antzeko galderen atzetik, erantzun gose: Nola idazten da? Eta nola idazten da hobeto? Arau batzuk sinesgaitzak haien zorrotasunean. «Ez umerik ekarri» (Richard Ford). Irribarrez hartzekoak asko. «Ez jarri mahaian miretsi duzun idazle baten argazkirik, bereziki, bere buruaz beste egin zuen ospetsu horietako bat baldin bada» (Roddy Doyle). Batzuei magia darie. «Kontatu gertatzen dena guztiz ulertuko ez bazenu bezala» (Jorge Luis Borges). Eta badira lizunak ere: «emakume pila apartarekin egin behar duzu txortan / emakume ederrak / eta maitasun poema dexente batzuk idatzi». Idazleen aholkuak bizitzeko errepide-mapak dira, bihurgune onirikoak ematen dituzte eta gero, gutxien espero duzunean, errealismo praktikoz betetzen dira. Horra Baudelaire, idazle gazteek behar duten bakarra «ongi eta sarri elikatzea» dela esaten. Idazle batzuk aitatu egiten dira edo amatu aholkuak ematerakoan. Beste batzuk irakasletu.

Gehienek errepikatzen dute aholku berbera: Idatzi. «Jarri hitz egokia eta idatzi» (Neil Gaiman). Eta inspirazioa? Eta musak? Ahaztu. «Inspiratuta nagoenean baino ez dut idazten, zorionez, beti nago inspiratuta goizeko bederatzietan, puntu-puntuan» (William Faulkner).

Hartu boligrafoa. Horixe izan zitezkeen liburu honen titulua. Edo hobe Hartu arkatza. «Hegazkinetan boligrafoak lehertu egiten dira» dio Margaret Atwoodek bere aholku zerrendaren hasieran, «arkatzari punta hautsi ahal zaionez, hartu bi arkatz».

Hartu bi arkatz.

Hori ere ez zen titulu txarra izango.

Baina hemen gatzokizuenok -Irati Jimenez hautaketa eta itzulpen lanetan, Harkaitz Cano hitzaurrean eta Antton Olariaga ilustrazioetan- beste batekin gatzokizuki: Aiztoa eta arkatza.



Idazle handi eta txikiek utzi diguten aholku nagusien zerrendan maiz errepikatzen baita ideia berbera: moztu, kendu, zorroztu, zuzendu, findu, landu. Hitz laburrak balio badu ez erabili luzea (George Orwell). Korapiloa askatu denean egin alde berehala (Billy Wilder). Amaieratik ahalik eta gertuen hasi (Kurt Vonnegut). Frank Yerbi idazleak ondo dio: «eleberri on bat aiztoarekin egiten da, ez arkatzarekin».

Antzeko zerbait esaten du Elmore Leonard lagunak ere: «Saiatzen naiz ez idazten jendeak saltatuko dituen parteak». Bizitzeko ere ez da aholku txarra. Liburu honetan dauden beste horrenbesteren antzera. Idazteaz idazten dutenean idaz-

leek maitasunaz eta frustrazioaz idazten baitute, aurrera egiteko borondateaz, publikoaren aurrean agertzeak ematen duen beldurraz, haurtzaroko ametsen garrantziaz, eguneroko lanaren txikikeriaz eta loriaz. Idaztea, dio Stephen Kingek On Writing liburu zoragarrian «bizitzaren ura da». Horregatik aholku zentzugabe, barregarri, ganoradun edota sinestezinen liburu hau ez da soilik idazleentzat, ezta ere idazleentzat bereziki. Tarteka edo sarri edo inoiz bizitzaren kontu honetan hasiberri sentitu den edonorentzat egin dugu.

Zuretzat. Bizitzaren uraren egarri zaren horrentzat.*



iraila

liburu gomendatua

ZZAA

Aiztoa eta arkatza

Somerset Maughamen ustez, «Hiru arau daude idazteko, zoritxarrez, inor ez da ados jartzen zeintzuk diren esateko orduan». Honek, ordea, ez du esan nahi aro, lurralde eta estilo ezberdinetako idazleak horiek zehazten saiatu ez direnik. Aholkuen zerrendan, maiz, ideia berbera errepikatu dute: moztu, zorroztu, zuzendu, findu, landu. «Hitz laburrak balio badu ez erabili luzea», George Orwell. «Amaieratik ahalik eta gertuen hasi», Kurt Vonnegut. Izan ere, Frank Yerbi idazleak dioen moduan, «eleberri on bat aiztoarekin egiten da, ez arkatzarekin».

Liburu hau aholkurik aipagarrienak biltzen saiatu da; zentzuzkoak, sinestezinak, barregarriak... idazteaz bezainbeste idazleari buruz hitz egiten digutenak. Horregatik, idaztearen harra barruan ez daukan irakurleak ere gozatua hartuko du idazteari, lanari edo bizitzari buruzko tratatu sorta honekin.



0515001 TXALAPARTA

ANTOLOGIA

256 or.

Salneurria 19,00 €

Bazkideak --,- €

Aldaketa abuztuaren 25a baino lehen



George Orwell
Margaret Atwood
Raymond Chandler
Augusto Monterroso
Stephen King
Zadie Smith
Jack Kerouac
Susan Sontag
John Steinbeck
Virginia Woolf
Jorge Luis Borges
...

